

EDUKIAK:

1. Hiruhilabetekoa:

- a. Italia Antiqua: Lucius, puer Romanus (**Gramatika**: deklinabidearen kontzeptua; Nominatibo kasua (1. eta 2. dekl.); alfabetoa eta ahoskera; aditza: orainaldia; **Kultura**: erromatar mundua: Italia Antiqua (Italiako geografia); **Etimologia; Testuak**). Denbora: 9 saio
- b. Roma quadrata: Familia Claudiaie (**Gramatika**: Genitibo eta Ablatibo kasuak (1. eta 2. dekl.); perpaus atributiboak eta predikatiboak; **Kultura**: erromatar mundua: Roma quadrata (Erromaren sorrera); **Etimologia; Testuak**). Denbora: 8 saio
- c. Rex in urbe Roma : Ubi habitamus? (**Gramatika**: perpaus iragankorrak eta iragangaitzak; Akusatibo kasua; generoak; **Kultura**: erromatar mundua: Rex in urbe Roma (Monarkia garaia); **Etimologia; Testuak**). Denbora: 8 saio

2. Hiruhilabetekoa:

1. Senatus Populusque Romanus: Quid pueri faciunt? (**Gramatika**: izen enuntziatua; infinitiboak; **Kultura**: erromatar mundua: S.P.Q.R. (Errepublikara garaia); **Etimologia; Testuak**). Denbora: 8 saio
2. Caius Iulius Caesar: Quid facit? (**Gramatika**: 3. deklinabidea; **Kultura**: erromatar mundua (Caius Iulius Caesar (Errepublikaren amaiera); **Etimologia; Testuak**). Denbora: 9 saio
3. Imperium: Ad templum (**Gramatika**: Bokatio kasua; genero neutroa; preposizioak; **Kultura**: erromatar mundua: Imperium (Inperio garaia); **Etimologia; Testuak**). Denbora: 9 saio
4. Hispania Romana: In itinere (**Gramatika**: latineko adjektiboak; **Kultura**: erromatar mundua: Hispania Romana (Erromanizazioa); **Etimologia; Testuak**). Denbora: 9 saio

3. Hilabetekoa:

1. Graecia et Roma: In exercitu Romano (**Gramatika**: Datibo kasua; 4. deklinabidea; aditza: indikatiboko iragan burutugabea; **Kultura**: erromatar mundua: Graecia et Roma (Antzinako zibilizazioen eragina eta ondarea mendebaldeko kulturaren); **Etimologia; Testuak**). Denbora: 8 saio
2. Hereditas (usus et mores): Dies Romanorum (**Gramatika**: 5. deklinabidea; indikatiboko iragan burutugabea; **Kultura**: erromatar mundua: Hereditas (Antzinako zibilizazioen ondarea); **Etimologia; Testuak**). Denbora: 8 saio
3. Hereditas (usus et mores): In thermis (**Gramatika**: gramatikaren laburpena; **Kultura**: erromatar mundua: Hereditas (Antzinako zibilizazioen ondarea); **Etimologia; Testuak**). Denbora: 8 saio

KALIFIKAZIOA ETA BERRESKURAPENA:

1. EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

Indarrean dagoen araudian curriculumerako ezarritakoak eta institutuko idazkaritzan hezkuntza komunitatearen eskura dagoen urteko programazioan zehazturikoak.

DBHko curriculum, Batxilergoko curriculum

2. Ebaluatzeko prozedura.

- a. Froga idatziak, objektiboak. Gutxienez bi ebaluazio bakoitzeko.
- b. Erromatar ondarearen inguruan ezagutzak ebaluatzeko hizkuntzarekin batera galderak egingo dira edota azterketa bereiztuak egingo dira.
- c. Lan monografikoak eta taldeka
- d. Irakurketa liburuak.
- e. Itzulpenak. Bai ikasgelan bertan bai etxean. Sintaxia barneratzea eta itzulpen teknikak ikastea dute helburu.
- f. Tresna hauekin batera, erran beharra da ikasleriaren auto-ebaluazioa indartuko dela. Horretarako baliabide informatikoak (TIC'S) erabiliko dira

3. Kalifikazio irizpideak:

- a. Froga idatzia (%80a) helburuen lorpena neurtuko duena.
- b. Ikerketa lanak ondarearen inguruan gehi irakurketa lanak ezagutzak neurtuko dituena. (%10a)
- c. Klaseko behaketa eta jarrera positiboa. Eztabaidetan parte hartzea. Materiala egunero ekartzea, puntualtasuna eta etorrera; interesa eta jarrera egokia neurtuko duena. Mugikorra latin klasean gordeta egon beharko da. Bakar bakarrik atera daiteke irakasleak esaten badu edukiren bat lantzeko. Atal hau 0 batekik kalifikatuko da ez bada mugikorraren araua betetzen. (%10)

4. BERRESKURAPENAK:

Kalifikazio positiboa lortzen ez duten ikasleentzat ebaluazio bakoitzaren ondoren berreskurapen froga bat egingo dute. Hirugarren ebaluaketarena araudiaren arabera bideratuko da. Ikasleren batek ez badu emaitza positiboa lortzen finala egingo du. Azkenik, ez badu gainditzen ez ohiko deialdian, ekainean, azkeneko aukera izango du du gainditzeko.